



**ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIKO  
ARTEZKARITZA BATZORDEKO AKTA  
ACTA DEL CONSEJO RECTOR DEL ORGANISMO AUTÓNOMO  
ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA**

Ezohiko bilera	Reunión extraordinaria
<b>Eguna / Día:</b>	<b>2015/11/25</b>
<b>Deialdia / Convocatoria:</b>	<b>Lehena / Primera</b>
<b>Hasiera ordua / Hora inicio:</b>	<b>11:00</b>
<b>Amaiera ordua / Hora finalización:</b>	<b>11:35</b>
Bertaratutakoak / Asistentes	
<b>Presidente delegatua / Presidenta delegada:</b>	Sonia Rodríguez Rodríguez      EAJ-PNV
<b>Batzordekideak / Vocales:</b>	Joseba Ibarretxe Fernández de Larrinoa      EH-BILDU
	Joseba Méndez Gómez      AG (4.puntuación sartu zen/se incorporó en el 4º punto)
	Itziar Arteagoitia Alonso      Zuzendari akademikoa
<b>Bertaratu ez direnak / Ausentes:</b>	Asier Kortajarena Zabala Maite Barahona Diaz Iñaki Unibaso Rolloso Juan Jauregizar Eskurza      UGAO PSE-EE (PSOE) HABE Ikasleen ordezk.
<b>Idazkari delegatua / Secretaria delegada:</b>	Begoña Ealo Agirre

**1.- AURREKO BILERAREN AKTA  
ONESTEA HORRELA BALEGOKIO  
(2015-10-21)**

Aurreko bileraren aktaren 5. puntuari idazketarekin izandako desadostasuna dela eta, Artezkaritza Batzordeak bertaratutako erabateko adostasunez, aldeko 12 botorekin (EAJ-PNVren 7 eta EH-BILDUREn 5), aktari dagokion aldaketa egitea eta hurrengo batzorde batean aurreko bileraren akta onartzea erabaki du.

## **2.- KREDITU GEHIGARRIAK DIRELA ETA, 2015. URTEKO AURREKONTUARI DAGOKION 1. ALDAKETA AGIRIA. 1/15**

## **1.- APROBACIÓN SI PROCEDE DEL ACTA DE LA REUNIÓN ANTERIOR (21-10-2015)**

Ante la discrepancia en la redacción del punto 5 del acta de la reunión anterior, el Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 12 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 5 de EH-BILDU), acuerda realizar la modificación correspondiente y posponer su aprobación a una próxima reunión.

## **2.- 1º EXPEDIENTE DE MODIFICACIÓN DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2015 POR CONCESIÓN DE CRÉDITOS**

## **TXOSTENA.**

Sonia Rodriguezek, Arrigorriagako Udal Euskaltegiko presidente delegatuak, kreditu gehigarrien bidez aurrekontuaren aldaketa egiteko proposamenaren berri eman du. Aldaketa hori 2012ko abenduari zegokion aparteko ordainsariaren zati bat ordaintzeko izango da. Hona hemen proposamena:

### **KREDITU GEHIGARRIAREN PROPOSAMENA**

Estatuko Gobernuak onartu zuen irailaren 11ko 20/2015 Errege Lege Dekretuaren 1. artikuluak hauxe jasotzen du:

*1. artikulua.- Sektore publikoko pertsonalaren 2012ko abenduari dagokion aparteko eta osagarriko ordainsaria berreskuratzea.*

*Lehena. Sektore publikoko pertsonalaren 2012ko abenduari dagokion aparteko eta osagarriko ordainsaria berreskuratzea.*

*1. Bai Administrazio publiko desberdinek, bai haien mendeko eta lotutako erakundeek behin ezohiko ordainsaria ordainduko dute 2015. ekitaldian. Ordainsari horren zenbatekoa izango da 2012ko abenduan kobrau gabe utzitako zenbatekoen %26,23 edo 48 egun dagokion baliokidea, beti ere artikulu honen jasotzen dituen mugak errespetatuz. Zenbateko horiek kobrau gabe geratu ziren 2012ko abenduari zegozkien aparteko paga, berariazko osagarriaren paga gehigarria edo baliokideak ziren ordainsari gehigarriak kendu zirelako, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko aparteko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua aplikatuz.*

2012tik aurrera, erakunde autonomo honek atxikitako finantzaketa duten gastuetarako diruzaintzako soberakin gisa erreservatu du urtero, uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua aplikatuz 2012ko abenduko aparteko

## **ADICIONALES. INFORME 1/15.**

Sonia Rodríguez, Presidenta delegada del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia da cuenta de la propuesta de modificación presupuestaria mediante crédito adicional para poder abonar una parte de la paga extra de diciembre de 2012. A continuación se recoge la misma:

### **PROPUESTA DE CREDITO ADICIONAL**

El Real Decreto Ley 10/2015, de 11 de septiembre, establece en su artículo 1 lo siguiente:

*Artículo 1.- Recuperación de la paga extraordinaria y adicional del mes de diciembre de 2012 del personal del sector público.*

*Uno. Recuperación de la paga extraordinaria y adicional del mes de diciembre de 2012 del personal del sector público.*

*1. Las distintas Administraciones públicas, así como sus entes dependientes y vinculados, abonarán dentro del ejercicio 2015, y por una sola vez, una retribución de carácter extraordinario cuyo importe será el equivalente a 48 días o al 26,23 por ciento de los importes dejados de percibir como consecuencia de la supresión de la paga extraordinaria, así como de la paga adicional de complemento específico o pagas adicionales equivalentes, correspondientes al mes de diciembre de 2012, por aplicación del Real Decreto-ley 20/2012, de 13 de julio, de medidas para garantizar la estabilidad presupuestaria y de fomento de la competitividad, con el alcance y límites establecidos en el presente artículo.*

Este organismo autónomo a partir de 2012 ha reservado todos los años, como remanente de tesorería afectado, la cuantía de la retención efectuada en la paga extra del personal de este organismo en aplicación del Real Decreto Ley

soldatari zegokion atxikipenaren zenbatekoa.

Hori dela eta, 10/2015 Errege Lege Dekretua aplikazioak eragindako gastuei aurrera egin ahal izateko aurreikusi da erabilgarri dagoen atxikitako finantzaketa duten gastuetarako diruzaintzako soberakina erabiltzea. Horretarako, 2015. urtean luzatutako aurrekontuan ustekabeko gastei horren handipena egin beharko da.

Behin kontuak eginda, pertsonalekiko betebehar berri horien zenbateko osoa 6.000,00 eurokoa da, gutxi gorabehera.

Ondorioz, hona hemen proposatutako aurrekontuaren aldaketa.

20/2012, de 13 de julio.

A tal efecto, para poder atender los compromisos derivados del Real Decreto Ley 10/2015 se ha estimado adecuado aplicar parte del remanente de tesorería para gastos con financiación afectada disponible, a la atención de esta ampliación de gasto imprevisto en el presupuesto inicial prorrogado del año 2015.

Según estimaciones realizadas, el importe global de las nuevas obligaciones con el personal asciende a 6.000 euros aproximadamente.

En consecuencia, se propone la citada modificación que a continuación se indica:

### **KREDITU GEHIGARRIAK / CREDITOS ADICIONALES GASTUEN EGOERA / ESTADO DE GASTOS**

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA / DENOMINACIÓN</b>	<b>GEHIKUNTZA INCREMENTO</b>
3350.130.03	Oinarrizko ordainsariak, 2012ko aparteko paga Retribuciones básicas, paga extra 2012	5.300,00
3350.131.01	2012ko aparteko ordainsaria. Aldi baterako pertsonala Retribución paga extra 2012. Personal temporal.	700,00
	<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA TOTAL CRÉDITOS ADICIONALES .....</b>	<b>6.000,00</b>

Aurreko zenbateko hori horrela finantzatuko da:

- Erabilgarri dagoen diruzaintzako soberakin likidoa aplicatuz.....6.000,00

El anterior importe queda financiado de la siguiente forma:

- Por aplicación del Remanente Líquido de Tesorería disponible.....6.000,00

Aztertu dira, batetik, finantza jasangarritasunari buruzko Udal kontuhartzailearen txostenetan eta, bestetik, aurrekontuaren aldaketari buruzko Udal Euskaltegiko kontu-hartzale delegatuaren txostenetan.

Vistos, por un lado, el informe de sostenibilidad financiera emitido por el interventor municipal y, por otro lado, el informe de la interventora delegada del Euskaltegi Municipal sobre la modificación del presupuesto.

Puntua bozkatu egin da:

Artekaritza Batzordeak aldeko 7 botorekin (EAJ-PNVrenak) eta EH-BILDUREn abstentzioarekin (5 boto), honako hau erabaki

Sometido el punto a votación:

El Consejo Rector con 7 votos a favor (EAJ-PNV, y la abstención de EH-BILDU (5 votos) acuerda lo siguiente:

du:

1.- Aurrekontuaren aldaketaren proposamena onartzea, lehen azaldutako baldintzen arabera.

2.- Aurrekontuaren aldaketa hau Udalera bidali Arrigorriagako Udalbatzak onartzeko eta publikatzeko.

Bozketa egin baino lehen, Joseba Ibarretxek bere botoaren zergatia azaldu du. Berak ordezkatzen duen taldeak uste du aparteko ordainsari hori 2012an ordaindu beharko zela.

### **3.- PRESIDENTE DELEGATUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.**

Artekaritza Batzordea Presidente delegatuak hartutako 33tik 37ra bitarteko zenbakidun ebazen jakinaren gainean geratu da.

### **4.- 2014-2015 IKASTURTEKO MEMORIA ETA 2015-2016 IKASTURTEKO PLANAREN BERRI EMATEA.**

Sonia Rodriguez, Arrigorriagako Udal Euskaltegiko presidente delegatuak, 2014-2015 ikasturteko memoriaren eta 2015-2016 ikasturteko egitasmoaren berri eman du.

Joseba Ibarretxek esan du Euskaltegiaren gaur egungo egoera kezkagarria omen dela. Itziar Arteagoitia zuzendari akademikoak baietz erantzun dio, oso kezkagarria dela, matrikulatzen diren pertsonen kopurua gero eta txikiagoa baita. Jarraian, Josebak galdu du Euskaltegiko pertsonala ea udal pertsonala den. Sonia Rodriguez ezetz erantzun dio, ez dela udal pertsonala, erakunde autonomoko pertsonala baizik. Josebak esan du HABERen pertsonala Eusko Jaurlaritzako funtzionarioak direla. Honen aurrean, Soniak argitu du erakunde autonomo hau Udalarena dela eta erantzunkizuna berea dela, eta ez HABERena.

Momentu honetan agertu da Joseba Mendez Gomez (AG), ordura arte bertaratu gabe, eta

1.- Aprobar la propuesta de modificación presupuestaria conforme a los términos previstos anteriormente.

2.- Trasladar al Pleno Municipal de Arrigorriaga esta modificación presupuestaria para su aprobación y publicación.

Antes de la votación, Joseba Ibarretxe explica el sentido de su voto. Así pues, el grupo al que representa siempre ha considerado que esta paga se debería haber pagado en 2012.

### **3.- DAR CUENTA DE DIVERSAS RESOLUCIONES DE LA PRESIDENTA DELEGADA.**

El Consejo Rector se da por enterado de las Resoluciones dictadas por la Presidenta delegada desde la número 33 hasta la número 37.

### **4.- DAR CUENTA DE LA MEMORIA DEL CURSO 2014-2015 Y DEL PLAN DEL CURSO 2015-2016.**

Sonia Rodríguez, Presidenta delegada del organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia da cuenta de la memoria del curso 2014-2015 y del plan del curso 2015-2016.

Joseba Ibarretxe comenta que la situación actual del Euskaltegi parece preocupante. A lo que Itziar Arteagoitia, directora académica responde que efectivamente es preocupante pues el número de personas que se matriculan es cada vez menor. A continuación Joseba pregunta si el personal del Euskaltegi es personal municipal. Sonia Rodríguez, responde que no es personal del Ayuntamiento sino que se trata de personal del organismo autónomo. Joseba dice que el personal de HABE son funcionarios del Gobierno Vasco. Ante esto, Sonia le aclara que este organismo autónomo es del Ayuntamiento y por tanto de su responsabilidad, no de HABE.

En este momento se incorpora Joseba Mendez Gomez (AG), ausente hasta este momento, y

hauxe eskatu du: dokumentu biak, hau da, egitasmoa eta memoria, gaztelaniaz jaso ahal izatea bere taldeak azter ditzan. Era berean, gaineratu du leku ofiziala izanda, beharbada dokumentuek bi hizkuntza ofizialetan egon beharko luketela.

Sonia Rodriguezek erantzun dio dokumentuak nahiko luzeak direnez, oso garestia izango litzatekeela gaztelaniaz itzultzera bidaltzea, osorik euskaraz baino ez baitaude eginda. Gainera, nahiz eta dokumentazioa bi hizkuntzatan jasotzeko eskubidea dela errekonozitu, euskaltegian lana euskaraz egiten denez, uste du, beharbada komenigarria izango litzatekeela talde politiko guztietaen euskaldunen bat egotea.

Joseba Mendezek jarraitu du esaten berak bost urte daramatzala batzorde hauetan eta inoiz ez duela ezer eskatu.

Sonia Rodriguezek erantzun dio dokumentu hauek Artezkaritza Batzordetik urtero sartzen direla eta beti euskaraz baino ez.

Joseba Ibarretxek Joseba Mendezi esan dio AG taldeko Aritzi bidaliz gero, dokumentuen laburpena egin ahal izango du eta. Gaineratu du, Udalean lanaren %95 gaztelaniaz egiten dela kontuan hartuta, ez dagoela txarto sailen batean lana euskaraz baino ez egitea, baina galdezko bere taldean ea benetan gaztelaniaz behar dituzten, edo dokumentuak dauden bezala egonda konpondu ahal izango diren.

Joseba Mendezek berriro esan du berak ez duela inoiz ezer eskatu. Gaineratu du, bere taldeko jendearekin hitz egingo duela gai honetaz eta zer edo zer behar izanez gero esango duela.

Sonia Rodriguezek puntuari amaiera emateko, adostasuna adierazi du, hau da, taldekoekin hitz eginda zerbait behar izanez gero, eskatzeko inolako arazorik gabe.

pide que se le haga llegar los dos documentos, el plan y la memoria, en castellano para que en su grupo los puedan analizar. Además, añade que al tratarse de un sitio oficial quizás deberían estar en las dos lenguas.

Sonia Rodríguez le contesta que son documentos bastante extensos y que sería mucho dinero mandarlos a traducir al castellano ya que están confeccionados íntegramente en euskara. Además, reconoce que es un derecho el recibir la documentación en los dos idiomas oficiales, pero al tratarse del euskaltegi, como se hace el trabajo en euskara, quizás lo conveniente sería que en todos los grupos políticos habría alguna persona euskalduna.

Joseba Méndez continúa diciendo que él lleva cinco años en estas reuniones y que nunca ha pedido nada.

Sonia Rodríguez le contesta que estos documentos precisamente se pasan todos los años por el Consejo Rector y siempre únicamente en euskara.

Joseba Ibarretxe comenta a Joseba Mendez que en el grupo de AG si se lo pasa a Aritz puede que le haga un resumen de los documentos. Añade que teniendo en cuenta que en el Ayuntamiento se realiza el 95% del trabajo en castellano no está mal que algún departamento trabaje sólo en euskara, pero que pregunte en su grupo a ver si realmente los necesitan en castellano o se pueden arreglar con los documentos como están.

Joseba Méndez insiste en que él nunca ha pedido nada. Añade que va a hablar con la gente de su grupo sobre este tema y que ya dirá si necesita algo.

Sonia Rodríguez finaliza el punto diciendo que de acuerdo, una vez comentado con su grupo, si necesitasen algo que lo soliciten sin ningún problema.

**5.- FAKTURA ZERRENDA ONESTEA  
HORRELA BALEGOKIO.**

Artezkaritza Batzordeak bertaratutako en erabateko adostasunez, aldeko 15 botorekin (EAJ-PNVren 7, EH-BILDUren 5 eta AGren 3), fakturen zerrenda onartzea erabaki du, zenbatekoa 240,45 eurokoa da.

Horrela, bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

**5.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA  
RELACIÓN DE FACTURAS.**

El Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 15 votos a favor (7 de EAJ-PNV, 5 de EH-BILDU, 3 de AG), acuerda aprobar la relación de facturas, cuyo importe asciende a 240,45 euros.

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2015eko azaroaren 25ean

PRESIDENTE DELEGATUA

IDAZKARI DELEGATUA